

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Funtsezkoa da gure enpresak bezeroekin harremanetan egoteko aukera izatea. Horretarako, posta elektroniko zein telefono zenbaki bat izango dugu, uneoro martxan egongo dena. Dei zein mezu guzti horiek erantzuteko gutako lankide bat egongo da etengabe lanean. Horrez gain, traola bat izango dugu beste era batera gure berri izateko.

Beste alde batetik, Zumaia-Deba kostaldeko herri guztietako biztanleria da gure bezeroa, zerbitzua tarte horretako itsas zaborra jasotzera burutzen baita. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi beste edozeinek parte hartu ez dezakeenik, guztiz aurkakoa, gaitasuna duten inguruko pertsonak ekintza honetan parte hartzeko eskubide osoa izango dute.

Era berean, aipatzekoa da zerbitzu honi arrakasta eta publizitatea emateko zenbait pausu eman behar ditugula. Esate baterako, argi dago zenbait kostu ordaindu beharko ditugula gure proiektuari buruzko informazioa internetan ager dezan, bezero berriak erakartzeko helburuarekin.

Horri esker, aldizkarien zein sare sozialen bidez gure berri izango dute. Plataforma hauetan egiten ditugun ekintza denei buruzko informazioa eskuragarri egongo da kontzientzia pizteko helburuarekin. Esate baterako, antolatutako ekintza guztien argazkiak argitaratuko genituzke, itsas ertzeko zaborra jasotzen parte hartzen duten pertsona guztiek momentu guztiak oroi ditzaten. Guzti horri esker, gure bezeroak hazi araztea dugu helburu eta gizarte osoa ohartaraztea zer nolako ekintza burutzen diren Euskal Herrian.